



Usurbilgo Udala

## 2019KO UZTAILAREN 23AN EGINDAKO EZOHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA

### BERTARATUAK

#### Alkate-Lehendakaria

Agurtzane Solaberrieta Mesa

#### Zinegotziak

Beñat Larrañaga Urdanpilleta  
Joxe Mari Iribar Zapiain  
Luken Arkarazo Silva  
Oskar Santamaria Pikabea  
Josune Urkola Larrarte  
Mirari Azurmendi Sorazu  
Carlos Pérez Fraisoli  
Andoni Atxega San Sebastian  
Francisco José (Patxi) Suárez Pérez

**Idazkaria:** Irantzu Arrizabalaga Gainza.

**Ez dira bertaratu:** Lur Etxeberria Gurrutxaga, Itziar Basterrika Unanue eta Aroa Etxeburua Ugartemendia.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2019ko uztailaren 23an arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ezohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Agurtzane Solaberrieta Mesa izan da Batzarburua.

### **1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA: 2019/06/25EKO AKTA.**

2019ko ekainaren 25eko plenoko 3. puntuaren bozketan Carlos Perezen bozka ez da agertzen. Bozketan horretan bere abstentzioa jarri ondoren, akta onartutzat eman da.

### **2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2019KO EKAINAREN 17TIK UZTAILAREN 12RA (2019/0565-2019/0658).**

Alkatetzak 2019ko ekainaren 17tik uztailaren 12ra bitartean (2019/0565–2019/0658) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.



Usurbilgo Udala

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

### **3.- EAJ/PNV UDAL TALDEKO ZERRENDABURUAREN ARDURALDI PARTZIALA.**

Alkateak puntu honi buruzko azalpenak eman ditu.

Agurtzane alkateak EAJ-ren zinegotziaren arduraldi partzialaren ezaugarriak aurreko legegintzaldian bezala mantentzeko proposamena egin du. Erabaki honen eragina atzeraeraginkortasunez exekutatzea, hau da, uztailak 1etik aurrerakoa izatea, nahiz eta Udalbatza beranduago ospatu. Josune Urkola and.k aurreko legegintzalditik zeregin horren jardunean diharduelako eta idazkaritzaren oniritziarekin.

Gardentasunez, berdintasunez eta zintzo jokatu nahi dute, nahiz eta gaia deserosoa izan guztientzako.

EH Bilduk duen irizpidea erabili behar dutela, alkate eta zinegotzi liberatuen kasuan erabili dena hain zuzen ere.

Josune Urkolak esan du alkateak eman dituen azalpenen arabera 13. maila dela oposizioa delako.

Alkateak argitu du esan duena dela ez dagoela arrazoirik maila aldaketa bat planteatzeko oposizio buruaren kasuan, eta azpimarratu du berdin egingo luketela beraien zinegotzien kasuan ere aurreko legealditik aldaketarik ez balitz egongo.

Udal gobernuaren kasuan, egon diren maila igoerak edo jaitsierak zein irizpideren arabera egin diren aurreko plenoan azaldu zuela gaineratu du.

Josune Urkolak jakinarazi du duela lau urte beraien alderdiko zinegotzi baten liberazio gutxienez erdia eskatu zutela, baina ezezkoa erantzun zitzaizela. Legez ez zegoela behartuta eta bere horretan utzi zela esan du. Baina gerora Lege berria indarrean sartu zenean, berriz eskatu zutela, lege horretan jasotzen baitzen 6.000tik gorako biztanleko herrietan oposizioari liberazio erdi bat zegokiola. Garai hartan baiezkoa erantzun zitzaizenean onartu zitzaizen liberazio erdi bat gobernu taldeko maila baxueneko zinegotziaren maila berberarekin. Azpimarratu du orain ere hori eskatu dutela, hau da, zinegotzi baxuenaren %50a eta ez dutela ulertzen zergatik ez zaien onartzen.

Bestalde, alkateak esan duenari buruz “ez balitz aldaketarik egongo gauza bera aplikatuko litzatekela”, Josunek gogorarazi du aurreko legealditik azkenekora pertsona berdinak izanik 6. mailatik 13. mailara igo zitzaizela.

Alkateak adierazi du bere ustez duindu egin zitzaizela.



Usurbilgo Udala

Gogorarazi du beraiantzat Eudeleko soldatak ez direla erreferenteak, abusiboak iruditzen baitzaizkie. Politikoek herriarekiko ardura bat dutela adierazi du, baina ardura bat dutela ere diru publikoaren erabilera zentzuz egiteko, eta hori bera aplikatzen diela azpimarratu du beraien ordainsariei.

Beraz, amaitzeko esan du maila aldaketa bat proposatzeko inolako motiborik ez dutela ikusten eta desberdintasunik egin gabe jokatzeko dutela.

Josune Urkolak, lehen aipatu duen bezala, duela 4 urte oposizioari 13. maila jartzeko zein irizpide erabili zen gogorarazi du, ez zitzaizela galdetu ere egin.

Batzarkideek, alkatearen proposamena kontutan hartuta, honako erabakia hartu dute gehiengoz:

“Esp.zk.: ID.02/2019-0188

Kontutan izanda, batetik, 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena eta 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa, non 33. artikuluan zehazki, oposizioaren estatutua arautzen da.

Bestetik, udal idazkariaren txostena.

Udalbatzarrak honako erabakia hartu du gehiengoz:

## ERABAKIA

**LEHENA:** EAJ/PNV udal taldeko zerrendaburua den Josune Urkola Larrartek arduraldi partziala izatea ezaugarri hauekin:


- Dedikazioa: Erdia (%50)
- Ordainsaria: Usurbilgo Udalean onarturik dauden ordain-erregimenen arabera, 13. maila.

**BIGARRENA:** Dedikazio eta ordainsariei 2019ko uztailaren 1etik aurrerako eragina izango dute.

**HIRUGARRENA:** Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki taulan eta udal webgunean argitaratuko da.

**LAUGARRENA:** Erabaki honen berri interesatuari, Kontu-hartzaileari eta pertsonalگو sailari emango zaie.”

Honela izan da bozketa:



Usurbilgo Udala

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Joxe Mari Iribar Zapirain, Luken Arkarazo Silva eta Oskar Santamaria Pikabea.

Aurkako botoak: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli eta Andoni Atxega San Sebastian.

Abstentzioa: Patxi Suárez Pérez.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

#### **4.- UDAL TALDE POLITIKOEN ETA ZINEGOTZIEN ORDAINSARIAK 2019AN.**

Alkateak adierazi du honakoa aurreko puntuarekin lotuta dagoela irizpideei dagokienean, izan ere egiten duten proposamena da aurreko legealdian zeuden kopuru berak mantentzea ez baitute aldatzeko arrazoirik ikusten.

Hauek izango lirateke zenbatekoak:

- Zinegotzi bakoitzeko: 1.320 euro.
- Talde politiko bakoitzari dagokion kopuru finkoa: 4.800 euro.
- Pleno, TGB eta Batzorde Informatzaileetara bertaratzeagatik dedikaziorik ez duten zinegotziek: 50 euro.

Kontu-hartzailearen txostena kontutan hartuta, batzarkideek gehiengoz onartu dute 2019ko Aurrekontua gauzatzeko Udal Araua aldatu eta egokitu egin beharko dela.

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Joxe Mari Iribar Zapirain, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea eta Patxi Suárez Pérez.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli eta Andoni Atxega San Sebastian.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

#### **5.- A-96 (PORTALMUSU) ETA A-97 (KOMENTUA) EREMUETAKO KONTZERTAZIO-HITZARMENA BEHIN BETIKOZ ONARTZEA.**

Alkateak esan du Hirigintza batzordean landu zuten gaia dela eta handik diktaminatuta datorrela.

Kontzertazio-hitzarmena hirigintza tramitazioan eman beharreko urratsa dela esan du. Jakinarazi du hitzarmena hasieraz ekainaren 5ean alkate dekretuz onartu zela,



Usurbilgo Udala

ondoren jendaurrean egon dela eta tarte horretan ez dela alegaziorik aurkeztu, beraz, orain tokatzen dena da plenoak behin betiko onarpena ematea.

Mirari Azurmendik formari dagokionean adierazi du sektoreaz hitz egiten dutenean A-96 (Portalmusu) eta A-97 (Komentua) aipatzen direla, eta dokumentuan aldiz A-96 eta A-97 (Miravalle) agertzen dela.

Idazkariak esan du galdetuko duela baina agian Plan Orokorrean bi eremuak agertuko ziren, Portalmusu eta Komentua, eta ondoren eremu horiek garatzerakoan Plan Bereziaren Miravalle izena jarriko ziotela.

Bestalde, Mirari Azurmendik aipatu du ba omen zela bertan gruta bat Lurdeseko amabirjinaren irudi batekin eta jasota edo bertan baldin badago mantendu edo beste kokaleku bat ematea eskatu du.

Alkateak zalantzan jarri du kutsu erlijiosoa duten sinboloak, nahiz eta zerbait historikoa izan, proiektuan jaso behar ote diren. Hori beste eztabaida bat izango litzatekeela esan du. Hasteko, bertan ote dagoen jakin beharko luketela aipatu du. Bertan balego, esan bezala, eztabaidatu beharko luketela dio herri guztiarentzat izango den proiektu horretan sinbolo erlijiosoek lekurik izan beharko ote luketen edo ez.

Galdera egingo dutela adierazi du.

Patxi Suárezek aipatu du irizpenean agertzen dela Hirigintza batzordean abstenitu egin zela eta berak aldeko bozka eman zuela adierazi du. Zumarteko gaian, berriz, abstenitu egin zela.

Erantzun zaio batzordeko idazkariari galdetuko zaiola eta, hala bada, zuzenketa egingo dela.

Batzarkideek, Hirigintza batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Espediente zenbakia: HZ.02/2019-0299

### AURREKARIAK

MATIA SERVICIOS SOCIALES S.L. UNIPERSONAL enpresak sustatuta, Plenoak, 2019ko maiatzaren 23an, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-96 (Portalmusu) eta A-97 (Komentua) eremuetako Hiri-Antolamenduko Plan Bereziaren Aldaketa onartu zuen behin betikoz.



Usurbilgo Udala

Ondoren, MATIA SERVICIOS SOCIALES S.L. UNIPERSONAL enpresak, eremua Kontzertazio Sistemaz garatu ahal izateko dagokion Kontzertazio-Hitzarmena aurkeztu zuen.

Alkatetzak, 2019ko ekainaren 5ean, Alkateak 2019/0517 zenbakidun dekretuaren bidez erabaki zuen hitzez hitz:

**LEHENDABIZI:** Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen Zazpigarren Xedapen Gehigarriko zortzigarren paragrafoaren arabera, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-96 (Portalmusu) eta A-97 (Komentua) eremuetako Kontzertazio-Hitzarmena, azalpenetan jasotakoa, hasieraz onartzea eta jendaurrean jartzea 20 lanegunez, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz, interesatuek berau aztertu ondoren, eta hala badagokio, bidezko alegazioak aurkeztu ditzaten.

**BIGARRENA:** Kontzertazioz-Hitzarmena izenpetu aurretik, hitzarmenaren sinatzaileak, MATIA SERVICIOS SOCIALES S.L.U. erakundeak, ondokoak bete beharko ditu:

- MATIA SERVICIOS SOCIALES S.L.U. erakundeak eremuan duen jabetza ziurtatzen duen erregistroko ziurtagiriak aurkeztuko du.
- Urbanizatzeko-kargen % 7ren abala formalizatu beharko du.
- Sinatzailearen ahalmen eskritura aurkeztuko du.

**HIRUGARRENA:** Erabaki honen berri MATIA SERVICIOS SOCIALES S.L.U. erakundeari ematea.

Alkatetzak emandako dekretua kontutan izanik, Kontzertazio-Hitzarmena jendaurrean jarri zen hoge lanegunez, ondoko iragarkiak argitaratuz:

- Berria: 2019-06-07
- Gara: 2019-06-08
- El Diario Vasco: 2019-06-11
- Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala (110. zenbakia): 2019-06-12

Espedientea jendaurreko epealdian egon zen bitartean ez da inolako alegaziorik tartekatu.

Hartutako erabakiaren arabera, sustatzaileak, MATIA SERVICIOS SOCIALES S.L. UNIPERSONAL enpresak, 2019ko uztailaren 3an, 79.800 €-ko bermea aurkeztu du. Bermea udal kontuhartzailetzan jaso da: 2019-JBAL-000006.

Era berean, sustatzaileak, hitzarmenaren sinatzailearen ahalmen eskriturak aurkeztearen batera, eremuan duen jabetza ziurtatzen duen agiria aurkeztu du.

#### KONTZERTAZIO-HITZARMENA



Usurbilgo Udala

Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-96 (Portalmusu) eta A-97 (Komentua) eremuetako Kontzertazio-hitzarmena honakoa da:

**HITZARMEN PROPOSAMENA, USURBILGO "A.96/A.97  
MIRAVALLE" EREMUA ITUNTZE SISTEMAREN BIDEZ  
EGIKARITZEKO, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO  
LURZORUARI ETA HIRIGINTZARI BURUZKO 2/2006 LEGEAREN  
160.2 ARTIKULUAK AURREIKUSITAKOAREN ARABERA**

Usurbilen 2019ko .....(a)ren .....(e)an

**BILDURIK**

**ALDE BATETIK:** ....., helbidea Hitzarmen honen ondorioetarako Usurbilgo Udaletxean duena.

**USURBILGO UDAL** txit prestuaren izenean eta ordezkari gisa dihardu, Tokiko Gobernu Batzarrak ..... bileran egintza honetarako emandako ahalmena baliatuz.

Hitzarmen honekin batera doa, 1. eranskin gisa, akordio horren ziurtagiria.

**ETA BESTETIK:** ....., adin nagusikoa, helbidea ....., ..... eta NAN zenbakia .....

MATIA SERVICIOS SOCIALES S.L. UNIPERSONAL erakundearen izenean eta ordezkari gisa dihardu. Erakunde hori Donostiako notario Jose M<sup>a</sup> Segura jaunaren aurrean 1993ko otsailaren 12an emandako eskrituraren bidez eratu zen (328 protokolo zenbakiarekin), eta Donostiako Zarautz hiribideko 123. zenbakian du helbidea eta IFK B-20441440, Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan inskribatua dago, SS-5688 orrian, 1. inskripzioa. Badu egintza honetarako ahalmena, . ..... notarioaren aurrean .....(e)ko .....(a)ren .....(e)an emana, bere ..... protokolo zenbakiarekin, emandako ahalorde eskrituran jasota dagoen bezala.

MATIA SERVICIOS SOCIALES S.L.U pertsona bakarreko sozietatea da, MATIA FUNDAZIOAREN mendekoa, Eusko Jaurlaritzaren Fundazioen Erregistroan inskribatua G-16 zenbakiarekin, helbidea Pinu bidea 35 zenbakian du eta IFK G-20053583; sozietateak duen kapital soziala aipaturiko Fundazio horrena da % 100ean.

Gipuzkoako Foru Ogasunaren oniritziarekin sortu zen, zentroak eraikitzean kendu ezin den jasandako BEZa epe luzera finantzatzea ahalbidetzen duen mekanismo gisa. BEZ hori Herri Administrazioari ordaintzen zaio higiezinaren bitzta erabilgarrian zehar MATIA SERVICIOS SOCIALES erakundeak MATIA FUNDAZIOARI egiten dizkion errentamenduen bidez jasanaraziz. Era horretan, laguntza



Usurbilgo Udala

eraikin handiak eraikitzeke edo berritzeko beharreko inbertsioak ematen dizkio Ogasunak Fundazioari.

Bi aldeek Ituntze bidez Egikaritzeko Hirigintza Hitzarmen hau sinatzeko behar besteko gaitasun juridikoa aitortzen diote elkarri, honako aurrekari hauek kontuan hartuta:

### AURREKARIAK

1. 2004ko irailaren 14an behin betiko onartu ziren Usurbilgo Arau Subsidiarioak (39 zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2005eko otsailaren 28koa). Plangintza orokorreko dokumentu horrek "A.96 (C/SE) Portalmusu" eta "A-97 (C/SE) Komentua" esparruak mugatzen zituen, besteak beste.
2. 2010ko ekainaren 30ean onartu zen A-96/A.97 MIRAVALLE eremuko Hiri Antolamendurako Plan Berezia. Arau Subsidiarioetan aurreikusitako bi horiek elkartuta sortu zen eremu hori.
3. Urbanizatzeko Jarduketa Programa (2010-07-9), Ituntze Hitzarmena (2010-06-30) eta Birpartzelazio Proiektua (2010-07-15) tramitatu eta onartu ziren, baina birpartzelazio proiektu hori ez zen Jabetza Erregistroan inskribatzera iritsi. Halaber, lehendik zeuden eraikinak eraitsi ziren, baina krisi arazoengatik plangintza ez zen egikaritu, eta gelditu egin zen jarduketa.
4. Udalbatzaren Osoko Bilkurak 2013-05-28an onartu zuen Usurbilgo Arau Subsidiarioen Testu Bategina (2013-09-10eko GAO).
5. Gaur egun, nahitaezko tramitazioaren ondoren, Udalbatzak 2019ko maiatzaren 23ko osoko bilkuran behin betiko onartu du A-96/A.97 MIRAVALLE eremuko Hiri Antolamendurako Plan Bereziaren Moldaketa. Horrez gainera, MIRAVALLE eremua Urbanizatzeko Jarduera Programaren Moldaketa formulatu da, eta kudeaketaren ondorioetarako, Egikaritze Unitate bakarra mugatu du berriro ere eta Ituntzea ezarri du berriro ere jarduketa sistema gisa.
6. A-96/A-97 MIRAVALLE eremuaren barneko jabetza partikulara, hasieran MATIA FUNDAZIOArena zena, 397 zenbakidun erregistro finka, MATIA SERVICIOS SOCIALES S.L.U. erakundeari eskualdatu zaio Donostiako notario MARTIN GABARAIN jaunak 2019-4-17an baimendutako kapital soziala zabaltzeko eskrituraren bidez, higiezinaren ez diruzko ekarpenarekin, eta beraz, huraxe da gaur egungo jabea.
7. Aipaturiko 2/2006 Legearen 160.2 artikulua xedatzen du ituntze sistemaz jardun ahal izateko, beharrezkoa izango dela betiere hitzarmen bat sinatzea eta hitzarmen horretan lurzorua jabeen % 50ek baino gehiagok beren egitea agindu horretan aipatzen diren hirigintza konpromisoak.





Usurbilgo Udala

8. USURBILGO Udalak, Administrazio jardule gisa, eta MATIA SERVICIOS SOCIALES S.L.U. erakundeak, A.96/A.97 MIRAVALLE Egikaritze Unitatearen barneko aprobetxamendu eskubidea duten lur pribatuen % 100en jabe gisa, eta haren hirigintza kudeaketaren sustatzaile den aldetik, Hitzarmen hau sinatzen dute, eremuaren kudeaketa eta egikaritzea burura eramaten lagunduko duten neurriak elkarrekin eta era koordinatuan hartu ahal izateko. Honako klausula hauek beteko ditu hitzarmenak,

### KLAUSULAK

#### **Lehenengoa.- MATIA SERVICIOS SOCIALES S.L.U.ren betebeharrak**

**A.** Jabe bakarraren birpartzelazio dokumentua prestatzea, esku hartzearen etekinak eta kargak ekitatez banatzeko, ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 44. artikuluan jasotako irizpideen arabera.

Birpartzelazio Proiektua aurkezteko epea hilabete batekoa izango da, Hitzarmen hau sinatzen denetik aurrera kontatuta.

Dokumentuak honako hauek adieraziko ditu gutxienez:

- Birpartzelaziorako jarritako finken deskribapena.
- Nahitaez laga beharreko lurren kokalekua.
- Lursail eraikigarrien kokalekua.
- Esparruaren kudeaketarekin loturiko gastuen behin-behineko likidaziorako kontua.

**B.** Era berean, nahitaez eta doan laga beharreko ondasunak jarri beharko ditu birpartzelaziorako, Legean eta Arau Subsidiarioetan zehaztutako baldintzetan, eta zehatz esateko, antolamenduan adierazitako erabilera publikoko bide eta espazio libreetarako azalera guztiak.

**C.** MATIA SERVICIOS SOCIALES S.L.U.k konpromisoa hartzen du urbanizazio kargak bere gain hartzeko eta Legeak eta Plangintzak Egikaritze Unitateari esleitutako urbanizazio obrak, azpiegiturak eta zerbitzuak egiteko. N-634 errepidearen oinetan igogailua eta autobus geltoki berria egiteari dagokionean, obra hori soil-soilik Foru Aldundiaren eta Usurbilgo Udalaren ekarpen ekonomikoekin egin behar denez, MATIA SERVICIOS SOCIALES S.L.U.ren obra hori egikaritzeko konpromisoa baldintzatuta gelditzen da, aldez aurretik onartu eta jarri behar baita kostu osoaren finantzaketa, Administrazio horien artean erabakitzen duten parte hartze baldintzetan. Horregatik guztiatik, obra horiek amaitu behar izatea ez da baldintza izango ekipamendua lehen aldiz erabiltzeko lizentzia emateko.

Egikaritze Unitatetik kanpoko obrak egikaritzeko beharrezkoa bada, MATIA SERVICIOS SOCIALES S.L.U.k, jabe bakar gisa, Usurbilgo Udalari eskatu ahal izango dio beharreko zortasunak eta okupazioak nahitaez ezartzeko titularrei.



Usurbilgo Udala

MATIA SERVICIOS SOCIALES S.L.U.k, jabe bakar gisa, bere gain hartuko du plangintzaren egikaritzea, eta urbanizazioa jarritako baldintzetan egikaritzeko zuzeneko erantzulea izango da Udalaren aurrean.

**D.** Bestalde, hirigintza aprobetxamenduaren % 15 laga beharko du, inolako urbanizazio kargarik gabe. Horretarako, haren balioa dirutan ordainduko du Birpartzelazio Proiektuaren esparruan, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 27. artikulua xedaturikoarekin bat etorriz, birpartzelazioak ez baitu ematen Udalak hirigintza eraikigarritasuna duen lursail baten jabari osoa izateko eskubiderik. % 15en lagapena, Urbanizatzeko Jarduketa Programak ezartzen duen bezala, Birpartzelazio Proiektuan definituko da.

#### **BIGARRENA: Betebeharrak**

Era berean, MATIA SERVICIOS SOCIALES S.L.U.k adierazten du aurrez hartutako konpromisoak bermatuko direla urbanizazio kargen zenbatekoaren % 7ko abala formalizatu eta emanda (igogailuaren eta autobus geltoki berriaren partidak kanpo utzita).

#### **HIRUGARRENA: Usurbilgo Udalaren betebeharrak**

Usurbilgo Udalak honako konpromiso hauek hartzen ditu:

1. Jabe bakarraren Birpartzelazio Proiektua tramitatzeko konpromisoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak xedatutako moduan.
2. Nahitaez eta doan eman beharreko lurak eta ondasunak hartzeko konpromisoa, legeak eta plangintzak zehaztutako baldintzetan.
3. Usurbilgo Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politiketako Departamentuaren artean sinatu beharreko jarduketa protokoloan hartutako konpromiso guztiak betetzeko konpromisoa.

(Bi administrazio publikoek egin beharreko ekarpen konpromisoa, soil-soilik eurek erantzuteko N-634 errepidearen oinetako autobus geltoki berriaren eta Gerontologia Zentro berriaren kotaraino dagoen desnibela gainditzeko igotze sistema bertikalaren kostuari).

4. Beren Ordenantza Fiskaletan aurreikusitako hobariak aplikatzeko konpromisoa MATIA SERVICIOS SOCIALES S.L.U.k eraiki behar duen eraikineko eraikuntza lanak zergapetzen dituen EIOZ zergari.

#### **LAUGARRENA.- Lurren eskualdatzea.-**



Usurbilgo Udala

Lurren besterentzeak ez du aldatuko haien titularrek Hitzarmen honetan beren gain hartutako konpromisoen egoera. Aurreko jabearen lekuan eta tokian subrogatuta geldituko da legez eroslea, eta aurreko jabe horrek bere gain hartutako konpromisoak zein diren adieraziko du besterentze ekintzetan.

Era berean, eskualdatzaileak Usurbilgo Udalari jakinarazi behar dio eskualdatzea egin duela, titular berriaren izena eta helbidea adierazita, jabari aldaketaren eskrituratik aipaturiko datu horiek bakarrik agertzen diren zatiaren kopia aurkeztuta, bai eta erosleak Hitzarmen honetatik etorritako eskubideak eta obligazioak subrogatu edo bere egiten dituela dioten eskrituraren klausulak ere.

### **BOSGARRENA. Hitzarmenaren tramitazioa**

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen Zazpigarren Xedapen Gehigarriaren 8. atalean xedaturikoa betez, hirigintza egikaritzeko hitzarmen hau jende aurreko informazio tramitean jarri behako da beronen onarpenaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta.

### **SEIGARRENA. Hitzarmenaren prozedura eta burutzea.**

Hitzarmen hau burututa geldituko da akordioa bete-betean baldin badago eskaintza egin eta hitzarmenaren gaia onartzen denean, Zazpigarren Xedapen Gehigarriaren 6. atalak xedatu bezala.

### **ZAZPIGARRENA. Hitzarmena iraungitzea.**

Hitzarmen hau iraungiko da berau betetzen denean edo ondoko arrazoi hauetakoren batengatik ezeztatzen denean:

- Dokumentu honetan jasotako funtsezko obligazioetakoren bat ez betetzea.
- Aldeek elkarren artean adostea.
- Indarrean dagoen legeriaren arabera aplikatu dakioken beste edozein, hala badagokio.

### **ZORTZIGARRENA. Aplikatzekoa den legeria**

Hitzarmen honetan aurrekusi ez den guztian, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legek Hirigintza Hitzarmenen alorrean jasotako arauak aplikatuko dira.

### **ZAZPIGARRENA. Formalizazioa eta jurisdikzioa.**

Hitzarmen honek izaera juridiko-administratiboa du eta beronen interpretazioari, aldaketari edo ezeztatzeari buruz sor daitekeen edozein liskar Udalak berak erabakiko du; haren akordioek amaiera emango diote administrazio bideari eta haien aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa Arautzen duen Legeak aurreikusitakoaren arabera.



Usurbilgo Udala

Eta fede onez bete dadin, agiri hau sinatzen dute, hiru aletan, adierazitako lekuan eta egunean.

Guzti hau ikusirik, Hirigintza Batzordeak, 2019ko uztailaren 17an egindako bilkuran, Agurtzane Solaberrieta, Beñat Larrañaga eta Patxi Suárezen aldeko botoekin eta Mirari Azurmendiren abstentzioarekin, luzatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## ERABAKIA

**LEHENENGO:** Plenoak, 2010eko ekainaren 30ean, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-96 (Portalmusu) eta A-97 (Komentua) eremuetako Kontzertazio-Hitzarmena behin betikoz onartuz hartutako erabakia bertan behera uztea.

**BIGARRENA:** Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-96 (Portalmusu) eta A-97 (Komentua) eremuetako Kontzertazio-Hitzarmena, azalpenetan jasotakoa, behin betikoz onartzea.

**HIRUGARRENA:** Kontzertazio-Hitzarmena izenpetzeko ahalmena ematea Alkateari.

**LAUGARRENA:** Erabaki honen berri interesatuei ematea.”

Honela izan da bozketa:


Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Joxe Mari Iribar Zapirain, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli, Andoni Atxega San Sebastian eta Patxi Suárez Pérez.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

## 6.- ZUMARTE MUSIKA ESKOLA BIRGAITU ETA HANDITZEKO CONSTRUCCIONES MOYUA, SL ENPRESAREKIN IZENPETUTAKO OBRA KONTRATUA ALDATZEKO ERABAKIAREN AURREAN TARTEKATUTAKO BERRAZTERTZE ERREKURTSOA ERANTZUTEA.

Alkateak adierazi du gai hau ere Hirigintza batzordean landu zutela. Bertan aipatu zuen moduan, aurreko legealdiko azken osoko bilkuran Udalak Moyuarekin adostutako prezio kontradiktorioak onartu ziren, baina honen aurrean Moyuak berraztertze errekurtsoa aurkeztu zuela esan du. Errekurtsu horretan funtsean prezio kontradiktorioen aldeko adostasuna agertzen zutela baina obraren luzapena 22 astekoa izatea eskatzen zutela adierazi du.

Errekurtsoa aztertu ondoren berau partzialki onartzea proposatzen dela adierazi du, obra 22 astez luzatzeko eskaera aintzat hartuz.



Usurbilgo Udala

Batzarkideek, Hirigintza batzordearen irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

“Espediente zkia: ID.05/2017-0483

### AURREKARIAK

Usurbilgo Udalbatza Plenoak, 2018ko martxoaren 5ean egindako ezohiko bilkuran onartu zen Zumarte Musika Eskola birgaitu eta handitzeko obra kontratua esleitzeko prozedura irekia. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udal Kontratatzaile Profilean 2018ko martxoaren 8an iragarkia argitaratu zen.

Kontratua CONSTRUCCIONES MOYUA, SL. enpresarekin sinatu zen 2018ko ekainaren 28an, eta zuinketa akta aldiz 2018ko abuztuaren 2an. Esleipen prezioa 1.637.371,09 euro izan ziren (%21eko BEZ barne 1.981.219,02 euro).

Kontratuaren exekuzioan zehar sortu diren beharrak direla eta Obra Zuzendaritzak prezio kontradiktorioak onartzeko proposamena egin zuen maiatzaren 10eko txostenaren bidez. Txosten horren arabera, jatorrizko fatxadetako hormetan agerian ipini dira hainbat gabezia eta aldaketa horrek ez lukete proiektuaren aldaketarik eskatuko.

Gauzak horrela, azaroaren 28ko 2568/1986 Dekretuak onartzen duen Toki Erakundeetako antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoaren Erregelamenduan (ROF delakoa), 175. artikuluan ezarritakoaren arabera, Pertsonal eta Kontratazio Teknikariak, Olatz De Miguel Arnaiz andereak eta udal idazkariak, Irantzu Arrizabalaga Gainza andereak, 2019ko maiatzaren 10ean emandako txostenean kontratua aldatzeko egindako proposamena kontutan izanik, plenoak zera erabaki zuen 2019ko maiatzaren 23an:

**LEHENA:** CONSTRUCCIONES MOYUA, SL. enpresari 1.981.219,02 eurotan esleituriko Zumarte Musika Eskola birgaitu eta handitzeko obra kontratua aldatzea.

**BIGARRENA:** 58.623,91ko gastua (%21eko BEZ barne) baimentzea eta gastu hau 1-6000-622-334-00-01 (AD 2019-914) kontu-sailaren kontura finantzatzea.

**HIRUGARRENA:** Enpresa horri esleitzea aldaturiko kontratuaren zatia eta 10 egun balioduneko epea ematea kontratuaren bermea handitu dezan (2.931,20 euro) eta ondoren aldatetaren formalizazioa sinatu dezan.

**LAUGARRENA:** Kontratuaren formalizazioa udaleko Kontratatzailearen Profilean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

**BOSGARRENA:** Erabaki honen berri CONSTRUCCIONES MOYUA, SL. enpresari, Hirigintza eta Kontuhartzailatza sailei ematea.



Usurbilgo Udala

## BERRAZTERTZE-ERREKURTSOA

2019ko ekainaren 18an, 2024 sarrera zenbakiarekin, CONSTRUCCIONES MOYUA, SL. enpresaren ordezkartzan diharduen LAURA GIL CABAÑERO andereak, Plenoak hartutako erabakiaren aurrean BERRAZTERTZE-ERREKURTSOA tartekatu zuen.

Egun berean, 2039 sarrera zenbakiarekin, CONSTRUCCIONES MOYUA, SL. enpresaren ordezkartzan diharduen LAURA GIL CABAÑERO andereak, Zumarte Musika Eskolako egituraren inguruko informea ere aurkeztu zuen.

Udal idazkariak, Irantzu Arrizabalaga Gainza andereak, berraztertze-errekurtsoa epe barruan eta era egokian aurkeztu dela ziurtatu du.

## BERRAZTERTZE-ERREKURTSOAREN XEDEA

Tartekatutako errekurtsoa aztertu ostean, CONSTRUCCIONES MOYUA, SL. enpresaren xedea bakarra esleitutako obren exekuzio-epealdia 22 astebetez luzatzea dela ikusi da, izan ere, gainontzean, prezio kontradiktoriak onartuz hartutako erabakiarekin ados baitago.

Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuko 98. artikulua honela dio hitzez hitz:


*"cuando el órgano de contratación, en el supuesto de incumplimiento de los plazos por causas imputables al contratista (...) opte por la imposición de penalidades y no por la resolución, concederá la ampliación del plazo".*

Kasu honetan, kontratua ez etetea erabaki denez, Obra Zuzendaritzak lanen berandutze arrazoien inguruan igorritako txostenaren arabera Udalak eska ditzakeen kalte-ordainen kalterik egin gabe, **Udalari exekuzio-epealdiaren luzapena ematea dagokio.**

Bestalde, Obra Zuzendaritzak egindako txostena kontutan izanik, exekuzio-epealdia 22 astebetez luzatzea hobesten da.

Guzti hau ikusirik, Hirigintza Batzordeak, 2019ko uztailaren 17an egindako bilkuran, Agurtzane Solaberrieta eta Beñat Larrañagaren aldeko botoekin eta Mirari Azurmendi eta Patxi Suárezen abstentzioarekin, luzatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du gehiengoz:

**ERABAKIA**



Usurbilgo Udala

**LEHENA:** CONSTRUCCIONES MOYUA, SL. Enpresak, 2019ko maiatzaren 23an plenoak Zumarte Musika Eskola birgaitu eta handitzeko obra kontratua aldatzeko erabakiaren aurrean tartekatutako berraztertze-errekurtsoa partzialki aintzat hartzea.

**BIGARRENA:** Plenoak 2019 maiatzaren 23an hartutako erabakia bere osotasunean berresten da, obraren exekuzio-epealdia 22 astebetez luzatuz.

**HIRUGARRENA:** Erabaki honen berri CONSTRUCCIONES MOYUA, SL. enpreari, Hirigintza eta Kontuhartzaitza sailei ematea.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Joxe Mari Iribar Zapirain, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli eta Andoni Atxega San Sebastian.

Abstentzioa: Patxi Suárez Pérez.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

## **7.- MOZIOA: NAFARROAKO ERDIALDEKO UHOLDE LARRIEN AURREAN AKORDIOA.**

Beñat Larrañagak mozioa irakurri du.


Josune Urkolak adierazi du beraiek mozioarekin ados daudela gertatutakoa larria izan baita. Hala ere, bigarren puntuan 1.000 euroko dirulaguntza bideratzea onartzen dela esan du eta ez dutela garbi ikusten dirulaguntza hau nori emango zaion.

Alkateak erantzun dio kaltetutako herrietako udalek hiru kontu korrante ireki zituztela diru ekarpenak jasotzeko, beraz, udalek jasoko dutela eta araututa edukiko dutela.

Josune Urkolak adierazi du 1.000 euroko dirulaguntzarena pixka bat abstraktua ikusten dela. Besterik gabe horrela bideratzea ea posible den galdetu du.

Alkateak erantzun dio kontsultatu zuela bai idazkariarekin eta baita kontu-hartzaitetzan, eta posible dela.

Gaineratu du horrelako egoeren aurrean udalen arteko elkartasuna positiboa dela.



Usurbilgo Udala

Batzarkideek, EH Bildu udal taldeak aurkeztutako mozioa aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

“Esp.zk.: ID.13/2019-0212

Pasa den uztailaren 8an izandako eurite handiek eta Zidakos ibaiak gainezka egin izanak, bereziki, Nafarroako erdialdeko Tafalla, Erriberri, Puiu, Beire, Pitillas, Leotz eta beste hainbat herri kaltetu zituen, etxebizitzetan, garajeetan eta komertzioetan kalte garrantzitsuak eragiteaz gain, oinarritzko azpiegiturak ere kaltetuak izan ziren, baita herrietako komunikazio-bideak, kaleak eta landa-bideak ere.

Zoritzarrez, uholde hauek 25 urteko Zeru Cañada Zorrilla gaztearen heriotza eragin zuten, bizi zen Gardalain herrira kotxez zihoala.

Hondamendi natural honek eskumena duten administrazio publikoen parte-hartzea eskatzen du, baita hain larriki kaltetua izan den eskualde honekiko elkartasun ekonomikoa adierazi nahi duten administrazio guztien dirulaguntza ere. Tafallako eta beste herri batzuetako udalek antolatutako auzolanetan herritar ugari erakutsitako elkartasun pertsonalaz gain, beste toki-entitate batzuek auzolan ekonomiko bat sustatzea posible izanen litzateke, besteak beste, euriteek eragindako kalteak moldatzeko behar diren inbertsioei aurre egin ahal izateko.

Honen guztiaren aurrean, Udalbatzarrak honako akordioa adostu du:

### **AKORDIOA**

Lehena.- Udal honek uztailaren 8an Nafarroako Erdialdean gertatutako euriteen eta uholdeen ondorioz kaltetutako herritarrei eta udalerriei elkartasuna adierazi nahi die, eta, bereziki, Zeru Cañada Zorrillaren senitartekoei.

Bigarrena.- Zentzu berdinean eta udalerriri horietako zerbitzuetan edo azpiegiturretan euriteek eragindako kalteak berreraikitzen laguntzeko, 1.000 euroko dirulaguntza bideratzea onartzen du Udalak.

Hirugarrena.- Udal honek kaltetuak izan diren herriei beraien elkartasuna adierazteko auzolan ekonomikoan parte hartzera animatu nahi ditu herritarrak, horretarako kaltetutako udalek ireki dituzten banku-kontuetan egokia ikusten duten ekarpena eginez.

Laugarrena.- Herritarrei akordio hauen berri ematea eskura dituen bitartekoen bidez.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Joxe Mari Iribar Zapirain, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea eta Patxi Suárez Pérez.





Usurbilgo Udala

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli eta Andoni Atxega San Sebastian.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

## **8.- GALDERA-ESKAERAK.**

Alkateak adierazi du baduela aipatzeko kontu bat.

Uztailaren 6an Uxue Trail izeneko lasterketa egin zela Usurbilen adierazi du. Kokatze aldera azaldu du Uxue 9 urteko usurbildarra dela eta Phelan-McDermid izeneko sindromea duela. Gaineratu du gaixotasun arraro kontsideratzen den horietako bat dela eta Espainia osoan 115 kasu besterik ez daudela eta EAEn diagnostikatuta Uxueren kasua dela soilik.

Uxueren familiak eta inguruko lagunek Uxue Trail izeneko lasterketa antolatu zutela azaldu du, batez ere bi helbururekin. Alde batetik, gaixotasuna bera ezagutzera emateko eta, bestetik, gaixotasun hau dutenen senideek osatzen duten elkarteari dirua emateko ikerketara bideratu ahal izateko.

Udal gobernuan gaia aztertzen egon zirela adierazi du eta ikusi zutela dio herrian sortu zen elkartasun uholde horrekin bat egin behar zutela. Hori horrela, aipatutako elkarteari 1.000 euroko dirulaguntza ematea hobetsi zutela gaineratu du.

Alkateak argitu nahi izan du ez dela inongo momentutan ez familia ez elkartearen aldetik dirulaguntza eskaerarik egon, baizik eta udal gobernuaren inizatiba izan dela. Alkatearen protokolorako badagoela 3.000 euroko partida bat, oraindik gastatu gabe zegoena, eta bertatik ateratzea erabaki zutela.

Alkatearen dekretuz bideratu zela jakinarazi du.

Josune Urkolak beraien adostasuna agertu du.

**Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:35etan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**